

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 89/2024 Erabakia, otsailaren 27koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen 2024ko deialdiari

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko "Gauzazko laguntzak" modalitateko laguntzak emateko oinarri arautzaileei. Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 12ko 12/2018 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori.

Aurreko paragrafoan adierazitako foru dekretuan, ezarrita geratu zen Arabako Lurralde Historikoko zein zona eta azpizonatan jardungo zen aldi berean, bai eta Arabako landa bideetan mantentze-lanak egiteko gauzazko laguntzen deialdi bakoitzean jarraitu beharreko ordena ere.

Jarduketa plana 3 zonetako 6. azpizonetatik hasi zen 2017ko deialdian, eta urtez urte gainerako azpizonetan egin da 2023ra arte.

Ordena horri jarraituz, deskribatutako 3 zonetako 1. azpizonetan jardun behar da 2024an.

- 1. zona, 1. azpizona: Moreda Arabako, Oyón-Oiongo eta lekorako udalak eta Oyón-Oiongo udalerriko toki erakundeak.
- 2. zona, 1. azpizona: Vitoria-Gasteizko (Hego-Ekialdea) eta Arraia-Maeztuko udalerrietako toki erakundeak.
- 3. zona, 1. azpizona: Okondoko eta Laudioko udalak eta Aiarako udalerriko toki erakundeak.

7. artikulua arabera, urtero onetsiko da kasuan kasuko laguntza deialdia, eta bertan, jarduketa azpizonez gainera, hauek ere sartuko dira: eskaerak aurkezteko epea eta lekua, dirulaguntzak esleituta duen aurrekontu kreditua eta, hala behar izanez gero, espedienteak sailkatzeko irizpide objektiboak, eskaerak aurkezteko inprimaki normalizatua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta dirulaguntzaren gutxieneko edo gehienezko zenbateko baliokidea.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatu den 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan bada kreditua gauzazko laguntza horietarako; hain zuzen ere, 40208. G/456400/65000402 "Landa bideak kontserbatzeko obrak" partidan. Hortaz, onetsi beharra dago horien deialdia eta finkatu urte horretako jarduketa eremu geografikoa.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Arabako landa bideen mantentze lanak egiteko gauzazko laguntzen 2024rako deialdia, 450.000,00 eurokoa. Deialdi hori Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko da, xehetasun hauekin:

— Jarduketa eremu geografikoa: 3 zonetako 1. azpizonak, erabaki honen I. eranskinaren arabera.

- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia:
- Aurkezteko epea: 15 egun baliodun, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
 - Aurkezteko lekua. Eskaerak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>).
 - edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoetan. AFaren egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKO sistemaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.
 - Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.
- Irizpide objektiboak: espedienteen sailkapena puntuka egingo da, taula honen arabera, eta ez dago erakunde bakoitzeko gehieneko mugarik:

IRIZPIDEA	PUNTAUZIOA
1. Erregistratutako bideen luzera. Puntu bat erregistratutako bidearen km bakoitzeko. Kilometro batera iristen ez diren erakundeei puntu bat emango zaie automatikoki	Puntu bat kilometro bakoitzeko
2. Mantentze-lanak egiteko beharra, eragindako elementuaren arabera	
Sastrakak kentzeko eta garbitzeko beharrezko jarduketak	1-3
Drainatze-elementuetan egin beharrezko jarduketak	1-3
Egiturazko elementuetan egin beharrezko jarduketak	1-3
Irizpide hori modu bateratuan zehaztuko da herriko bide guztien gainean, eta puntu batetik hirura aplikatuko da ezarritako talde bakoitzean, herriko bideen luzera osoan duten eraginaren arabera	

– Dirulaguntza zein aurrekontu kredituri egozten zaion: 450.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiak 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko gastu aurrekontuko 40208. G/456400/65000402 Landa bideak kontserbatzeko obrak partidaren kontura.

Bigarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko titularrari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

I. ERANSKINA

2024KO DEIALDIKO JARDUKETA AZPIZONAK

1. ZONA – 1. AZPIZONA		
UDALA / ENTITATEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (KM)
MOREDA ARABA	GUARDIA – ARABAKO ERRIOXA	24,09
MOREDA ARABAKO UDALA		24,09
OYÓN-OION	GUARDIA – ARABAKO ERRIOXA	99,21
OYÓN-OIONGO UDALA		44,00
GORREBUSTOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		30,83
LABRAZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		24,38
IEKORA	GUARDIA – ARABAKO ERRIOXA	63,71
IEKORAKO UDALA		63,71

2. ZONA – 1. AZPIZONA		
UDALA / ENTITATEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (KM)
GASTEIZ (HEGOALDEA EKIALDEA ZONA)	VITORIA-GASTEIZ	92,26
ABERASTURIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		15,08
ANDOLLUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,80
ARKAUTIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,34
ARGANDOÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,94
ARKAIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,45
ASKARTZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,46
BOLIVARKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		0,50
GAZTELUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,26
GAMIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,76
MATAUKUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,93
MENDIOLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		11,15
MONASTERIOGURENGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,12
OREITIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,18
OTAZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,66
URIBARRI NAGUSIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,43
VILLAFRANCAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,59
ZERIOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,61
ARRAIA - MAEZTU	KANPEZU – ARABAKO MENDIALDEA	77,58
APILAIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,34
ATAURIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,19
AZAZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,54
KORRESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,07
MAEZTUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,61
ERROETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,23
LAMINORIAKO ERRET HARANEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,29
ERROITEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,26
SABANDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,88
BIRGARAGOIENGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,17

3. ZONA – 1. AZPIZONA		
UDALA / ENTITATEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (KM)
OKONDOKO UDALA	AIARA	16,46
OKONDOKO UDALA		16,46
LAUDIOKO UDALA	AIARA	44,97
LAUDIOKO UDALA		44,97
AIARAKO	AIARA	118,19
AGIÑAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,56
AÑESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,38
ARESPALDITZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,49
OPELLORAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,95
ERBIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,49
ETXEGOINGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,06
IZORIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,80
LEXARTZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		0,99
LLANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		27,17
LUJIAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,87
LUXOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		0,44
MAROÑOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,19
MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,70
MENOIOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,57
MURGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,86
OLABEZARKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,09
OZEKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,01
KEXAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,86
RETES DE LLANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,16
SALMANTONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,15
SOXOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,55
ZUHATZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,85